

Balio proposamena

“Fast Fashionaren” industrian sortzen diren hondakin kopuru handiak kaltegarriak dira gure ingurumenerako, eta hondakin horiekin bukatzea da gure enpresaren helburu nagusia. Moda azkarretik sortzen diren arropak kalitate eskasekoak edo txarrekoak izaten dira normalean eta ez dira bat ere iraunkorrak izaren, azkar hondatzen baitira. Horren aurrean gure enpresak arropa jasangarria eta batez ere kalitatezkoa eskaintzen ditu, beti ere ingurumenarentzat ahalik eta kalte gutxien eginez. Gure proposamen hau berritzailea da, izan ere moda egiterako orduan naturari ahalik eta inpaktu negatibo gutxien egiten saiatzen garelako.

Ingurumena edo natura zaindu nahi duten horiek konfiantza ematen diote gure markari, badakitelako nola jokatzeko duen gure enpresak naturarekiko duen jarrera errespetagarriarengatik. Erabiltzen ditugun materialak guztiz iraunkorrak eta biodegradableak dira, eta diseinuak modan azkarrean oinarrituta egon arren, kalitateari eta iraunkortasunari lehentasuna ematen diogu.

Gure enpresaren balio nagusietako bat kalitatea da, guk moda azkarra egin arren kalitatea asko zaintzen dugu, batez ere gero ingurumenari kalte edo min gutxi egiteko helburua dugulako. Beste enpresa lehiakideengatik bereizten gaituzten elementu nagusiak berritasuna eta marka estatusa dira, gure helburua erreparatuz, eta jakinda ez dela soilik arropa eskaintzean, baizik modaren munduan aldaketa garrantzitsu bat egitea.